

Non dago Mikel?

IRENE ELORZA

1985ean Mikel Zabalza nafar gaztea ETAko militante batekin nahasi eta atxilotu egin zuen Goardia Zibilak, beste gazte batzuekin batera. Zabalza desagertuta egon zen hogeiei egunez eta tortura zantzuekin aurkitu zuten hilik, Bidasoa ibaian. Bertsio ofizialaren arabera, Zabalzak komisaldegitik ihes egin zuen; gizartearen gehiengo zabal baten iritziz, torturatuta hil zen gaztea. Inoiz ez zuten inor ez epaitu ez zigortu.

2020ko azaroan 35 urte beteko dira Zabalza hil zenetik. Familiak eta bailara oso batek (Aezkoa, Nafarroa) egia jakin nahian jarraitzen dute. Gertaera ikertu, egia azaldu eta belaunaldi berriei transmititzeko beharra guztien gogoan zegoen. Film dokumental bat egitearen ideia sortu zen orduan. Hori da gaur Zinemaldian estreinatuko den *Non dago Mikel?* filmaren hazia. "Memoria oso ahula da, oso hauskorra, eta Aezkoa bailarako jendeak filma egiteko deitu zigutenean, esan ziguten kezkatuta zeudela belaunaldi berriek ez zekitelako benetan zer gertatu zen", azaldu du Miguel Angel Llamasek, proiektuaren gidaritzza hartu zuen zuzendariak.

Handik urte batzutura eta *crowdfunding* eta diru laguntzen bidez finantziazioa lortuta, Amaia Merinorekin (*Asier ETA biok*, 2013) harremanetan

Herri bat bere memoriaren alde borrokan



Amaia Merino eta Miguel Angel Llamas.

jarri zen proiektua garatzeko. Merinok berehala esan zion baietz, eta urte luzez bere aberria izan den Ekuadorretik Euskal Herrira itzuli zen lanean burubelarri hasteko. "Nik hamabost bete berri neuzkan Zabalzaren desagerpena gertatu zenean, niretzako eta beste askorentzat inoiz ahaztuko ez dugun zerbait izan zen", azaldu du Merinok.

Dokumentazio lan handia aurretik egina zegoen, izan ere, Miguel Angel Llamasek hamar urte zeramatzan hazia zen proiektua auzolanean eraikitzen, horretarako artxiboak eta bazterrak astintzen. Hiru zutabetan oinarritzen da dokumentala: batetik, Mikel Zabalzaren iloba gazteek familiaren etxean aurkitzen duten informazioz betetako kutxak sinbolizatzen duen transmisioaren gaia; bestetik, ETB hasi berri batek orduan bildutako ikus-entzunezko material itzela; eta bestetik, Zabalzarekin batera atxilotu eta torturatua izan zen Ion Arretxeren testigantza laugarria.

Auziaz bi bertsio egon ziren hasieratik, ofiziala eta alternatiboa. "Bertsio ofiziala bihurtu zen inork sinesten ez zuena, eta bertsio 'alternatiboa' bihurtu zen ofiziala, jende guztiak sinesten zuena", dio zuzendariak, "gezurra hain handia zen, herritarren bertsioa gailendu egin zela". Egun iskanbilatsuek eta gogorrak izan ziren haiek. Protesta ugari egin ziren eta eztanda sozial handia egon zen.

ETBri esker berreraiki izan dute egun haietako kronika. "Ez zuten bakarrik editatutakoa gorde, brutoak ere gorde zituzten. Kasua oso garrantzitsua izan zen guztiontzat, baita ETBko kazetarientzat eta langileentzat ere, eta horregatik material hori gordeta eta digitalizatuta izan da arreta handiz", dio Amaia Merinok. Llamasek zera gaineratu du: "Dokumentalak egiten dituen edozeinek inbidia handiz ikusiko du dokumental hau, orain dela 35 urteko gertakari bat horrela dokumentatua eta hain ongi jasota edukitzea ez baita normala; artxiboak bakarrik dena kontatzen du eta zuk zure ondorioak ateratu ditzakezu ondoren", azaldu du.

Egiaren ondoren, aitortza

Euskal Herriarentzat egindako dokumentala da *Non dago Mikel?*, lehenik eta behin. Gertatukoaren memoria ez galtzea izan da proiektuaren helburua. "Badakigu tortura Euskal Herrian metodologia bat izan dela, hori aitortu eta esan behar da", azaldu du Merinok. Egia jakiteak gizarteari on egiteaz gain, egia hori ezkatzen duenarentzat onuragarria dela sinetsita dago zinemagilea. "Guatemala, Argentina, Uruguai eta abarretan gertatu dira horrelakoak eta Egiaren Batzordeak sortu dituzte guztietan; eta Espainian ez? Izugarria da!", gaineratu du.

Caminho longo

Itzuleraren dimentsio intimoaren lekukoak

I.E.

Josu Martinez eta Txaber Larreategi zuzendariak deportazioa testuingurutzat duen filma ekarri dute Zinemirara: *Caminho longo*. Hau ez da erbestearearen errealitatera gerturatzaren diren lehen aldia, izan ere, 2010eko Zinemaldian *Sagarren denbora* izeneko lana aurkeztu zuten, ETAko militante ohi Alfonso Etxegarai eta bere adiskide Kristiane Etxaluzen bizipenak jasotzen zituen filma.

Oraingo honetan, berriz, 33 urte ondoren Etxegarai Sao Tome eta



Principe uharte-estatu afrikarretik Euskal Herrira itzultzea erabakitzen duenean hasten da kontakizuna. Prozesu intimo hura dokumental batean jasotzea erabaki zuten zuzendariak. "Normalean proiektua daukazu, finantziarioa bilatzen duzu eta gero garatzen duzu; guk kontrakoa egin genuen: albistea jakin orduko Sao Tomera joan, grabatu eta ondoren finantziario fasea abiatu", dio Larreategik. *Crowdfunding* bidez finantziatu dute filma. Ekoizpen txikia zen eta berehala iritsi ziren behar zuten kopurura.

"Bien istorioa kontaktu nahi izan dugu orainoan", adierazi du Txaber Larreategik, "pertsonekin film bat egin nahi izan dugu, ez deportazioaren ingurukoa". Helburu hori gogoan, egileek artxibo lanari uko egin zioten, Alfonsori eta Kristianeri

eman zieten hitza eta, testuinguru ahaztu gabe, haien gogoeta eta bizipenetan jarri zuten fokua. Eguneroko une intimoen, emozioen, beldurren eta itxaropenen kontakizun intimoa bihurtzen da dokumentala. "Bi pertsonaia oso ezberdinak dira eta bakoitzak bere ikuspegitik bizi du egoera, irakurketa oso desberdinak eginez", gehitu du Larreategik.

Txaber Larreategi eta Josu Martinezen lan berria memoria berreskuratzearen inguruko hausnarketa ere bada. Erabaki konplexu eta arriskuetsu baten egunerokotasunean murgiltzen du ikuslea. "Hau ez da *Sagarren denbora* filmaren bigarren zatia, hark 'puntu suspentsiboak' uzten zituen airean bikotearen istorioari dagokionez; orain, etenaldi hori bertan behera utzi eta itzulerako abentura kontatu nahi izan dugu".

CON LA MEJOR TECNOLOGÍA
LLEVAMOS TUS SUEÑOS A LA GRAN PANTALLA